

ATXIKITZEKO BANAKAKO AGIRIA

Honako hitzarmen honi atxikitzeiko banakako agiria: Software-hornitzaile diren entitateekin kanpoko lankidetzarako hitzarmena, hirugarrenen izenean zerga berezien xedeko produktuen kontabilitate-liburuak elektronikoki aurkez ditzaten Nafarroako Foru Ogasunaren zerbitzu elektronikoen bidez.

Izen-deiturak:, IFZ:,
helbidea:, helbide elektronikoa:
....., telefono zenbakia:

Alta emanik dagoena ekonomia-jardueren gaineko zergaren epigrafe honetan:,

edo

Izen-deiturak:, IFZ:;
honako entitate honen izenean eta hura ordezkatzuz:
IFK:, helbidea, helbide elektronikoa:
....., telefono zenbakia:

Alta emanik dagoena ekonomia-jardueren gaineko zergaren epigrafe honetan:,

Agiri honen bidez, bere borondatea adierazten du honako hitzarmen honi atxikitzeiko: Software-hornitzaile diren entitateekin kanpoko lankidetzarako hitzarmena, hirugarrenen izenean zerga berezien xedeko produktuen kontabilitate-liburuak elektronikoki aurkez ditzaten Nafarroako Foru Ogasunaren zerbitzu elektronikoen bidez, zerga berezien xedeko produktuen kontabilitate-liburuak berehala aurkezteko (SILICIE) sistemaren betebeharrak betetze aldera. Halere, eskatzaileak ez du aukerarik izan hirugarrenen izenean zerga arloko jakinarazpen eta beste agiri batzuk (hau da, zerga berezien xedeko produktuen kontabilitate-liburuez bestelakoak) aurkezteko, ez eta zerga-zorren ordainketa telematika bidez tramitatzekoa ere, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak ekainaren 29an emandako 130/2009 Foru Aginduaren bidez onetsitako kanpoko lankidetzarako hitzarmenaren arabera.

Sinatzaileak lankidetzarako hitzarmen honen edukia osorik ezagutzen du, eta bere egiten ditu espresuki horren ondoriozko betebeharrak, ordezkari den aldetik eta, hirugarrenen izenean eta kargura, zerga berezien xedeko produktuen kontabilitate-liburuen aurkezle den aldetik.

Sinatzaileak adierazten du aipatu hitzarmenaren esparruan eginen dituen jarduketetan une bakoitzean izanen duela behar den ordezkaritza hirugarrenen izenean eta kargura jarduteko, Tributuari buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorraren 36. artikuluan xedatutakoari jarraituz; ordezkaritza hori frogatu beharko du Nafarroako Foru Ogasunak eskatzen dionean.

Sinatzaileak berariaz onartzen du Nafarroako Foru Ogasunak bere eskumenak erabiliz bidaltzen dituen jakinarazpen administratiboak bide elektronikoen bidez jasotzea. Horrela, ulertzen da sinatzaileak adierazten duela aipatu erakunde autonomoaren jakinarazpen elektronikoak jaso nahi dituela.

(Tokia eta data),

Sinatzailea:

Agiri hau sinatuta, sinatzaileak baimena ematen du bere datu pertsonalak eta ordezkatzeko duen entitatearenak automatizaturik trata daitezen lankidetzaren hitzarmen honetan sinatutakoaren ondorioetarako (Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 11ko 3/2018 Lege Organikoaren 11. artikulua).